

## **ALOKUTIBOA LOPEZ-ENGAN – (1782)**

Xarles VIDEGAIN

### **Korpusa**

Gure korpusa itzulpena da, hain zuen 1782an Lopez apezak Alfonso Rodriguez-en *Práctica de la perfección cristiana* (1609) erlisionezko liburu famatua euskarara itzuli zuena, frantses itzulpen batetatik abiatuz.

Liburuaren tituluak honela dio:

«ALPHONSA RODRIGUEZ, JESUSEN COMPAGNHACO Aitaren Guiristinho perfeccioniaren prakticaren pparte bat heuzkarala itçulia hezcara becic eztakitenen daco. =Preciua hoguei-eta bost soz = AVIGNHONEN ANTONIO AUBANEL Liburu Salçaliaren, eta Aita Seindiaren choil Imprimu çaliaren Beithan = M.DCC.LXXXII. Superiorenen approbacione eta permissioniareki.

Liburuak 466 orrialde badauzka (ikus VINSON, Bibl., 228 orr.)

Zilegi bekit hemen Lafitte jaunaren eskertzea, ondoko lana egin bait dut berak prestatu didan Lopez-en liburuaren ale bat baliatuz.

Bestalde, alokutiboa euskal aditzaren eskema orokor batean sartzen baita, J. Allières-ek proposatzen duen aditzaren eskema hartu dut gidari (1.taula). Gauzak laburtu beharrez, ez dugu forma bakoitzaren textoingurua ematen; erreferentzia guziak agertuko dira Toulouse-ko unibertsitatean prestatzen ari garen lan batean.

### **1. Alokutiboaren definizioa**

Aski ezaguna den bezala, Ostibarreko euskalkiaren ezau garri haundienerik bat da alokutiboen erabilkera. Usaia hori erran behar dugu hurbiletik segitzen zuela Lopez idazleak ondoko etsenplu hauek erakusten diguten bezala.

## 1. Taula

1

I. <sub>o</sub>	IZAN		I. <sub>oo</sub>	IZAN	
	Er.	Pot.		Er.	Pot.
+Or.	DA	DATE (KE)	X	ZAIÓ	ZAIÓKE
-Or	ZEN	ZATE(KE)EN	X	ZITZAION	ZITZAIKEEN
	(b) LÍTZ	LÍTZATE(KE)	X	(b) LÍTZAIO	LÍTZAIOKE
	-DI-			-DI-	
+On.	DADI	DAITE (KE)	X	DAKIO	DAKIOKE
-Or	ZEDIN	ZAITE(KE)EN	X	ZEKION	ZEKIOKEEN
	(b) LADI	LAITE (KE)	X	(b) LAKIO	LAKIOKE
Imp.	BEDI		X	BEKIO	
T. <sub>oo</sub>			T. <sub>ooo</sub>	UKAN	
	UKAN			UKAN	
+On.	DU	DUKE	X	DIO	DIOKE
-Or	ZUEN	ZUKEEN	X	ZION	ZIOKEEN
	(b) LU	LUKE	X	(b) LIO	LIOKE
	-ZA-			-ZA-	
+On.	DEZA	DEZAKE	X	DIEZAIO	DIEZAIKE
-On	ZEZAN	ZEZAKEEN	X	ZIEZAION	ZIEZAIKEEN
	(b) LEZA	LEZAKE	X	(b) LIEZAIO	LIEZAIKE
	BEZA		X	BIEZAIO	
DAKIN	DAKI	DAKIKE	X	-Iro-T. <sub>oo</sub>	DIRO
	ZEKIEN	ZEZIKEEN	X	ZIROEN	ZIROKEEN
	(b) LAKI	LAKIKE	X	(b) LIRO	LIROKE
DOAN io	DOA	DOAKE	X	I.	DOAKIO
	ZOAN	ZOAKEEN	X	ZOAKION	ZOAKIOKEEN
	(b) LOA	LOAKE	X	(b) LOAKIO	LOAKIOKE

NOR sailean (I.o) hartzen badugu lehen etsenplua:

«Guero umilitathiaren guri gomendatceco ordeinhu batez beçala, apaltcen *ducu* bere goihentcian bere Dicipulier huinhen ikuzteranokuan,» (257.15).

*ducu* agertzen da eta ez *da*.

NOR-NORI sailean (I.oo) horra etsenplua:

«Ene Aita, banitatezko edo urgulezko goguaketa bat jin *ciaacu*» (15.2).  
*ciaacu* agertzen da eta ez *zait*.

NORK-NOR sailean (Too), eman dezagun:

«Jesu-Christoc erraiten *dici*» (256-3).

*dici* agertzen da eta ez *du*.

NORK-NOR-NORI sailean (Tooo).

«Platonec hori ikussiric galdeguin *cirakoçun* cer ari cen; ihardesten *dirakoçu*: Platonen urgulaiaren huinhen petan erabilten» (259-23).

*cirakoçun* eta *dirakoçu* agertzen dira, ez zerakon edo derako.

Etseenplu hauen ondotik, alokutiboak diren formen definizio hau proposatzen dugu: *aditz-forma bat alokutiboa da, 2garren edo 5garren pertsonako marka hartzen duelarik, nabiz eta 2garren edo 5garren pertsona hori ez den aktante bat*.

Definizio honen ondorioz, toka edo noka mintzatzea ez dela berez baitezpada alokutibo bat erran behar da; 2garren pertsona, emazte ala gizon izanik, aktante bat balinbada, forma neutro bat baizik ez da agertzen. Hi *haiz*, eman *dauk*, erran *dakok*, eman *daun*, erran *dakon*, forma neutroak dira.

Beraz gure iduriko, biga dira aditzak onart dezazkeen tratamenduak. Lehenbizikoa, tratamendu neutroa deituko dugu; toka, noka edo zukako mintzatzeko manerak onartzan ditu.

Bigarrena, hemen gehienik interesatzen zaukuna, tratamendu alokutiboa deituko dugu. Berriz erran dezagun forma alokutibo batek 2garren edo 5garren pertsonari dagokion marka bat hartzen duela, 2garren edo 5garren pertsona hori aktante bat ez delarik. Gertatzen dena da alokutiboa bera toka, noka edo zukakoa izan ditekeela. Lan honetan zukako alokutiboa baizik ez dugu kontuan erabiltzen, salbuespen zenbait ez ezik: *dic*, 429-21; *die*, 430-6; *thie*, 430-8; *eztur*, 144-20; *tuc*, 430-10; *civiat*, 250-21.

Bestalde, aktanteek normalez hartu behar dituzten kasuak alokutiboak ez ditu batere kanbiatzen. Tratamendu neutroan aktante bat nominatiboan badago, ber kasuan egoiten da, alokutiboa sar dadin ala ez. Adibidez:

«Philosophac urrun cituçun» (259-8).

Tratamendu alokutiboa dago; tratamendu neutroan, «Philosophac urrun ciren» izan zitekeen. Gauza bera gertatzen da ergatibo eta datiboarekin.

Alokutiboak ez du hortan zeren aldatzerik. Erran nahi baita forma alokutibo batean dagoen 2garren edo 5garren pertsonako markak ez duela kiderik aktanteetan.

## 2. Alokutiboaren maiztasuna

Lopez-ek derabilan alokutiboaren maiztasuna agertu nahi genuke 2.taulan. Taula hontako forma bakoitza zenbaki batez segitua da, zenbaki horrek aintzineko formaren okurrentziak adierazten dituela. Ezker, forma neutroa agertzen da; eskuin, forma alokutiboa.

NOR sailean, *izan* aditza hartuz orain-aldi errealean, *da* 4 aldiz agertzen da lehen berrogeitamazazpi orrialdeetan, *duzu* alokutiboa kasik 100 aldiz agertzen delarik.

NOR-NORI sailean, proporzioa ez da askoz ttipiagoa: *zako* aldi bakar batez agertzen delarik eta *ziakozu* 14 aldiz.

NOR-NORK sailean, *ukan* aditzak *du* forma 7 aldiz agertzen du, *dizi* alokutiboa 69 aldiz.

NORK-NOR-NORI sailean, *derako* behin agertzen da, *dirakozu* 32 aldiz.

Beherago, aditz-laguntzaileetaz bestalde, aditz-trinkoek ez digute besterik erakusten, bereziki *egon* aditzak. *Dago* behin agertzen den aldean, *diagozu* haren kide alokutiboa, 33 aldiz agertzen da.

Portzentaiak baliatuz, horrela ager daiteke alokutiboaren maiztasuna orain-aldi errealean.

Io,	IZAN	→ % 95
Ioo,	IZAN	→ % 93
Too,	UKAN	→ % 89
Tooo,	UKAN	→ % 98
Io	EGON	→ % 98
Too	-io-	→ % 100
Too	-IRO-	→ % 77

Dato hauek orain-aldiari doakiote. Iragan-aldira iragaiten bagara kuriosa da egin dugun oharketa; ezagun da iragan-aldiko formak homofonoak direla perpaus txertatuaren marka harturik ala ez. Hala nola konparazione erraiten den:

«Jin behar zen gizona zaharra zen».

Bietan *zen* erraiten da nahiz lehenbiziko *zen* horrek erlatibozko marka ekartzen duen. Orain-aldian biak ongi bereizten dira: *da* eta *den*.

«Jin behar den gizona zaharra da».

Lopez-engan eta alokutiboari esker, iragan-aldiko bi forma homofono horiek biziki ongi bereizten dira: adibide berbera hartuz honela erran zukeen Lopez-ek.

## 2. Taula

	Dr. Err.		Irag. Err.		Dr. Pot.		Irag. Pot	
IZAN Io	DA 4 <sub>(misiy.)</sub>	DUÇU 95	# (cam)	ÇUÇUN 4 <sub>misiy.</sub>	DATE 3	DÜKEÇU 17	ÇATEEN 1	ÇUKEÇUN 3
-DI- I.	-	-	-	-	DAITE 11	DIEITEÇU 42	-	CIEITEÇUN 1
IZAN I..	CAKO 12	CIAKOÇU 14	# (carakan)	CİCİAKOÇUN 20	-	-	-	-
UKAN Too	DU 7	DİCI 69	# (cam)	CİCİN 50 <sub>(misiy.)</sub>	DUKE 7	DİKEÇİ 4	ÇUKEEN 2	CİKEÇİN 2
UKAN T... T...	DERACO 1	DIRAKOÇU 32	# (carakan)	CİRAKOÇUN 49	-	-	-	-
JOAN I.	DUHA 3	DİHACU 40	# (cam)	CİHAÇUN 2	-	-	-	-
EGON I.	DAGO 1	DIAGOÇU 33	# (çagun)	CİAGOGUN 7	-	-	-	-
IBILI I.	#	DİABILAÇU 1	#	#	-	-	-	-
-IO- Too	#	CİOÇU 31 <sub>misiy.</sub>	# (cam)	CİOÇUN 3	-	-	-	-
JAKIN Too	DAKI 2	CIAKİÇU 3	# (cam)	CIAKİÇUN 1	-	CIAKİKEÇUN 1	-	-
-IRO- Too	DIRO 3	CİROÇU 26	# (cam)	CİROÇUN 1	-	-	-	-

«Jin behar zen gizona zaharra zuzun-»

Eta hori gure 2.taulan garbiki ikusten da; *zen*, *zitzakon*, *zien*, *zerakon*, *zuken*, *zagoen*, *zakien* bezalako formarik ez da behin ere erabiltzen nun ez den perpaus txertatu batean sartua. Aldiz, frangotan agertzen da heien forma alokutiboa: *zuzun* 4 aldiz lehenbiziko berrogei orrialdeetan, *zitzakozun* hogei aldiz, *zizin* hamar aldiz, *zirakozun* berrogei ta bederatzi aldiz, *zibazun* bi aldiz, *ziagozun* zazpi aldiz etabar.

Potentzialean ere alokutiboa nausitzen zaio forma neutroari, hala nola *-di-* aditzean *dieitegu* 41 aldiz agertzen delarik, eta *daite* 11 aldiz bakarrik.

### 3. Formen deskripziona

Aintzinetik señalatu nahi genukeena da Lopez-en alokutiboak argi ta garbi atxikitzen dituela forma neutroek izaiten ahal dituzten oposizio guziak, diancesaren aldetik nola aditz-tireten aldetik, erran nahi baita balentzien aldetik eta aditz-aldien aldetik.

Tratamendu neutroak lau balentzi-era ezagutzen ditu:

- NOR (Io) edo toki batetako intransitiboa.
- NOR-NORI (loo), bi tokitako intransitiboa.
- NORK-NOR (Too), bi tokitako transitiboa.
- NORK-NOR-NORI (Too), hiru tokitako transitiboa.

Alokutiboak ez ditu batere nahastekatzen.

Tratamendu neutroak zazpi aditz-tireta baditu.

- Orain-aldi erreala/potenziala.
- Iragan-aldi erreala/potenziala.
- Ebentual erreala/potenziala.
- Inperatiboa.

Alokutiboak denak errespetatzen ditu.

Morfologiaren aldetik so eginez, forma alokutiboak forma markatuak direla erran daiteke; *dalduzu*, eta *dateldukezu* bi pareak gerorako utziz, alokutiboek zerbait gehiago hartzen dutela aditzera emaiten digute beste forma guziek. Beraz, alokutiboa forma markatua da.

Marka hori zoin den? Ez dela beti berdina ikus daiteke ondoko tauletan. Halere eta laburtzeko, hiru dira alokutibo baten kausitzekotan baliatzen ahal diren eraiketak:

1. Lehenbizikoa da *izan* aditzaren alokutiboen kausitzeko *ukan* aditzak Too sailean dituen formak mailegatzea.

Adibidez da → duzu  
naiz → nuzu

2. Bigarrena, eta emankorrena da, bi elementuren barneratzea forma neutroetan; *i* bat da lehen elementua, *zu* da bigarreneko.

Adibidez: derako → diakozu  
daite → dieitez  
zako → ziakoz  
dago → diagozu  
zauden → ziaudezun,

eta zenbait lege fonetikoren gorabeheraz, eraiketa hontan sartzen dira ere:

du → dizi  
zuen → zizin  
luke → likezi.

3. Hirugarren manera ez da batere hedatuena eta hiru aditz baizik ez du hunkitzen; *jakin*, *-iro-*, *-io-*. Orain-aldi errealean, 3.garren pertsonan dagoen *d*-aurrizkia z-batetara kanbiatzen da.

Adibidez: badaki → baziakizu  
diro → zirozu  
dio → ziozu.

Azken salbuespen hauek kenduz, aditz-tireten markak diren D-, Z-, L-aurrizkiak ez ditu alokutiboak batere aldatzen. Osterantzean, kasu gehienetan fermuki errespetatzen ditu 2.taulak erakusten duen legez. g9Inperatiboaren marka, B-aurrizkia, ez da hunkitua modu honek alokutiborik ez baitdiro onart).

Ikus ditzagun orai aditz bakoitzaren formak.

### 3.1.lo.

#### 3.1.1.IZAN (3.taula)

Orain-aldi errealean *ukan*-eko forma neutroak dira *izan*-eko formak alokutiboak.

niz → nuzu  
da → duzu  
guira → guituçu  
dira → dituçu

Textointerpretaak anbiguitaterik ez digu uzten bereziki aktanteen markari esker.

Bestalde, eta G. REBUSCHI-k esplikatu duen bezala, *da/duzu* formen arteko sinkretismoa urtzen da iragan-aldira pasatzen bagara; *duzu* neutroak *zindien* emaiten du, *duzu* alokutiboak *zuzun* emaiten du.

Gauza bera gertatzen da bi potentzialeetan; *date/dukezu* parean, *dukezu* neutroak *zindukeen* emaiten du iragan-aldian, *dukezu* alokutiboak *zukezun* emaiten du.

## IZAN II.

## 3. Taula

	Or. Err.	Iraq. Err.	On. Pot	Iraq. Pot	Elo. Pot.
1	NIZ	NUÇU	NINÇAN NINDÜÇUN	-	-
2	-				
3	DA	DÜÇU	CEN İÇÜÇÜN	DATE DATEKE	DUKEĞU ÇATEEN ÇUNEGUN BAL LICATE LUKEĞU
4	MAGUIRA	GÜTÜÇÜ	-	GÜBATESKEDİ GÜTÜKEŞÜ	-
5	CIRA			CIRATEKU	
5'	CIRETE		ETCINETEKI	BAHZ. CIRATEKS	
6	DIRA	DITUŞU TUŞU	CIREN CİTUŞUN	DİRATE DIRATEKE	DITUKEŞ TUKEŞU

Ebentual erreala ez diteke akomea alokutiboarekin perpaus nausi batean ez baita sekulan agertzen ahal, beraz, *balitz*, *baleza*, *balu*, *baladi*, *baleraco* bezalako formek ez dute alokutiborik. Ebentual potentzialak, aldiz, badauka:

*lizate* → *lukezu*

*lukezu* ez da agertzen forma neutro bat gisa.

### 3.1.2. -DI- (4.taula)

Errealari dagokion alokutiborik *-di-* aditz-laguntzaileak ez du erakusten lehengo arrazoinarengatik berarengatik; perpaus menperatu batean baizik ez baita agertzen ahal *-di-* ko formarik.

Aldiz, hiru Potentzialeek alokutiboa badaukate. Heien egiteko erregela simplea da; «*i*» izkia sartzen da, eta «*zu*».

daite → dieiteçu

zaiteen → zieiteçun

laite → dieiteçu

Ohartarazi nahi genuke polimorfismoa agertzen zaigula forma neutroetan, biña baitdira potentzialeko markak: *-TE*, *-TEKE*; *daite* 4 aldiz agertzen da, *daiteke* 7 aldiz. Alokutiboa *-KE* marka ez dugu atxemaiten, *-TE* bat aski zaoi alokutiboari potentzialaren markatzeko.

## Di- Io

## 4. Taula

	Or. Err.	Irag. Err.	Or. Pot	Irag. Pot	Eb. Pot
1			NAITE	-	MINDITIKEN
2			-		
3			DAITE DAITEKE	DIBITEGU DIETEGU	CAITEELA CIEITEGUN
4			EZTA. KRISTE GUITAKE	DIB GUITIZTEGU GUITAREGU	-
5			CITAKE		-
5'					-
6			DAISTE DITAKE	DIBIESTEY DIBIESTEW	LITAKE LIEIZTEGU

## 3.2. Ioo

## 3.2.1 IZAN. (5.6. taulak)

Ioo IZAN		5. Taula					
oo	1	2	3	4	5	5	6
0	ø	-	-	ø	-	-	-
1	-		-		ø	ø	-
2		ø	-				
3	ÇAUT	-	CAKO	CAKULUA	CAUÇU	CAUCIE	CEE
	ÇIAÇU		ÇIADEGU	ÇIAQUEU			ÇIEEGU
4	ø	-	-	ø	-	-	-
5	-	ø	CAZKONAZ	-	ø	ø	-
5	-	ø	-	-	ø	ø	-
6	CAUSKIT	-	ÇAZKO	MAH- ÇAUSKIGU	CAUSKIGU	CAUSKICIE	CESTE-N
	ÇIAZHIDATU		ÇIAZKOGU	ÇIAZKIGU			-

OHARRA: GELATXO BELTZATU BATEK ALOKUTIBORIK EZ DEZAKET ONART

## IZAN Too Irag.Err.

## 6. Taula

	1	2	3	4	5	5	6
1	Ø	-	-	Ø	-	-	-
2	-	Ø	-	-	Ø	Ø	-
3	-	-	CITGAKO-U CIBIANGUN CITEIAKOGUN	-	-	CITEAUCIEN EZPAITZ CITEREN CITIGUN CITEIEGUIN	-
4	Ø	-	-	Ø	-	-	-
5	-	Ø	-	-	Ø	Ø	-
5	-	Ø	-	-	Ø	Ø	-
6	GAUZKIDAN	-	CIBAGASHOLA CITGASKON CISTEROL	-	-	-	-

Sail huntan formarik ez zauku agertzen aktante guziekin, baina hori gertatzen da alokutiboan nola neutroan.

Alokutiboaren eraiketa simplea da: i+zu.

zako → ziakozun

zauk → ziaazu, (*t*-aren bariantea, *da*-k bere konsonantea galdu du)

zee → zieezu

zauzkit → ziazkidatzu

zitzakon → zitziakozun

Orain-aldi eta Iragan-aldi errealaletaz bestalde, ez dugu alokutiborik atxemaiten lekat ebentual-potenzialeko forma hau:

*Litzauzkeguzu* (1.34)

### 3.2.2. -DI-

-DI- aditzak ez du alokutiborik NOR-NORI sailean.

### 3.3. Too

#### 3.3.1. UKAN (7.,8.,9.,10. taulak)

Hemen ere *i* izkia eta *zu* marka sartzen dira aditz-forma neutro batean alokutiboaren egiteko. Gertatzen dena da, *i* horrek herts-erazten duela zu-ren [U]soinua, formaren bokalismoa bi *i*-rekin gelditzen delarik.

*Du* formak ez du \**diuzu* emaiten, baizik eta *dizi*

*Zuen*-ek formak ez du *ziuzun* emaiten, baizik eta *zizin*

UKAN Too On.Err.

7. Taula

oo	1	2	3	4	5	5	6
1	Ø	-	NU Nici	Ø	-	-	NUTEN NICIE
2	HUT	Ø	-	-	Ø	Ø	-
3	DUT DICTIT	-	DU -Li, ETCI DICI	BAITUBU Diici	DUÇU	DUCIE	DUTE CIA DICIE
4	Ø	-	GUITU GUITICI	Ø	-	-	-
5	CITUT	Ø	EZPACITU	-	Ø	Ø	-
5'	-	Ø	-	-	Ø	Ø	CITUTZTEN
6	TUT TICIT	-	TU BAITIN Tici	BAITITUGU TUGUN Tiici	TUÇU	BATUCIELAKOTZ TUCIELAKOTZ	BAITITUSTE TUZTEN TICIE

UKAN Too Irag.Err.

8. Taula

oo	1	2	3	4	5	5	6
1	Ø	-	-	Ø	-	-	BANINDUTEN NINDICIE
2	-	Ø	-	-	Ø	Ø	-
3	NIEN NICIN	-	CIEN CICIN	GUINDIEN -	CINDIEN	-	CUTELA CICIEN
4	Ø	-	-	Ø	-	-	-
5	BAITZINTUDEN	Ø	-	-	Ø	Ø	-
5'	-	Ø	-	-	Ø	Ø	-
6	-	-	CITHIEN CITICIN	GUINTHIEHAI -	-	-	CITUTZTEN CITICEN

Bilakaera fonetiko hunek badu abantailik, zeren eta intransitibo eta transitiboaren arteko oposizioa garbiki atxikitzen bait du alokutiboan, bokalismoari esker.

XARLES VIDEGAIN

Duzu (Io) ≠ dizi (Too)

Lukezu (Io) ≠ Likezi (Too)

Zukezun (I) ≠ zikezin (Too)

UKAN Too Or. Pot.

9. Taula

	0	1	2	3	4	5	5'	6
..	-	-	-	-	-	-	-	-
1	Ø	-	-	-	Ø	-	-	-
2	-	-	Ø	-	-	Ø	Ø	-
3	-	-	-	BADUKE	DUKEGUNER	DUKEFU	-	EZPAITUKETE
	DIKECIR			DIKECI	-			DIKECIE
4	Ø	-	-	-	Ø	-	-	-
5	-	-	Ø	-	-	Ø	Ø	-
5'	-	-	Ø	-	-	Ø	Ø	-
6	-	-	-	DITUKEEN BUTITUKE	DITUKEUN	TUREGU	-	-

UKAN Too Eb. Pot.

10. Taula

	0	1	2	3	4	5	5'	6
..	-	-	-	-	-	-	-	-
1	Ø	-	-	-	Ø	-	-	-
2	-	-	Ø	-	-	Ø	Ø	-
3	BA NUKE	-	-	LUKE	EZKINDUNE	CINDUKE	-	LUKETE-IA
	NIKECI			LIKECI	EZKINDUNELA	GUIMBIKECI		LIKECIE
4	Ø	-	-	-	Ø	-	-	-
5	CINDUKEET	-	Ø	ETCINTUNER	-	Ø	Ø	-
5'	-	-	-	-	-	Ø	Ø	-
6	-	-	-	-	GUINBUZNEEN GUINBUZNEEN GUINBUZNEEN	CINDUKEEN CINTUNER	-	EZPAITUKETE

## 3.3.2. -ZA-

-za- aditzak gure korpusean ez du alokutiborik agertzen, hiru salbuespen kenduz.

Lehenengoa, orain aldi Potentzialean: *eskitçakecie* (T64)

Beste biak, Ebental Potentzialean: *litçakeçu* (T36)

*guingakeçu* (T46. eta T34).

Anbiguitate hau forma neutroetatik datorke, zeren eta Lopez-en hizkuntzak nahasten baititu bi formak: *baguintça* batzutan T46 bat delakotz eta bestetan T34.

Bestalde -za- aditzaren ziloa ainitzetan -iro- aditzak betetzen du Lopez-engan, geroago ikusiko dugun bezala.

## 3.4. Too

## 3.4.1. UKAN (11.12. taulak)

Alokutiboa egiten da Too sailean bezala, beraz *i* izkia eta *zu* sartuz; beraz, forma guziak *di*, *zi* edo *li* batez hasi behar dira. Halere, erran behar da batzutan *i* izkia ez dela beti agertzen eta ondoko bikoteak ikusten direla: *dirakoçut/derakocut*, *diragucul/deraguçu*, *dirauzkigecul/derauzkiguçu*, bainan beti *i* izkia duten formak *e-koak* baino gehiago agertzen dira.

UKAN Too Or. Err.

11. Taula (1)

	0	1	2	3	4	5	5'	6
00				DERAUT		DERADACU		DERATE
1	Ø			DIRAGU DIRACU DIRAPCU	Ø			DIRAACIE
2	DEREAT		Ø			Ø	Ø	
3	DERAKOT	-	DERACO	DERACOMA	DERACOÇU	DERAKOCIE LAKIC		3AK- TERAKOTE
4	DIRAKOCUT		DIRACOGU	DIRAKOGUCU				DIRACOCIE
5	Ø	-	DERAGU BAL- TERABE		DERAGNU	-		DERAGUTEN
5'	DERAUÇUT	Ø	DERAUÇU			Ø	Ø	DIRAUÇIE
6	DERAUÇIET	Ø	DERAUÇIE			Ø	Ø	
			DEREE	DEREUNE- KILAN		-		3AK- TEREE
			DEREEGU DIREEGU	DIREGUÇU		-		DIREECIE

## 11. Taula (2)

	1	2	3	-	5	5	6
1	Ø		DERAUSKIT		Ø	-	DERASTATEK
2	-	Ø	-	-	Ø	Ø	-
3	-	-	-	DERAZKOGU WRC	-	-	DERAZCOTE DERZETE
4	Ø		DERASKON	DERAZKOGU	-	-	DERAZKIGUN
5	DERAZKIGUN		DERAZKIGUN DERAZKIGUN	-	Ø	Ø	-
5'		Ø	-	-	Ø	Ø	-
6	-	-	DERESTE	-	-	-	DERESTEN
	DIRESTEGUT		DIRESTEGUN				

## UKAN To... TRAGAN ALDI ERREALA

## 12. Taula (1)

	1	2	3	4	5	5	6
1	Ø	-	-	Ø	-	-	-
2		Ø	-		Ø	Ø	-
3	-	-	CERACON	-	-	-	CERAKOTEN
4	Ø	-	CIRACOGUN	-	-	-	CIRACOCION
5		Ø	-	-	Ø	Ø	-
5'	-	Ø	-		Ø	Ø	-
6	-	-	CEREEN	-	-	-	-
			CIREEGUN				

## 12. Taula (2)

	1	2	3	4	5	5	6
1	∅	-	-	∅	-	-	-
2	-	∅	-	-	∅	∅	-
3	-	-	CERRAZKON	-	-	-	CERRASKOTEN
4	∅	-	CERRAZKION	∅	-	-	-
5	-	∅	-	-	∅	∅	-
5'	-	∅	-	-	∅	∅	-
6	-	-	CERESTEN CESTEN	-	-	-	CIRESTECIEN

T533 forma neutroa, *deracocu*, aldiz, ezin da nahas T333 forma alokutiboaarekin (*diracocu*) azken hau beti agertzen delakotz i izkiarekin.

Tratamendu neutroan, *dereste* formak bi errannahi izaiten ahal ditu: T366 edo T666 (anbiguitatea). Errannahi bakoitzak badu bere alokutiboa. T366 formak *direeçu* emaiten du, eta T666 formak *direstecie* emaiten du. Hemen beraz, alokutiboa neutroa baino zehatzagoa da.

Orain-aldi eta iragan-aldi errealetaez aparte, bi forma alokutibo baizik ez dugu atxeman Lopez-engan, biak ebentual-Potentzialean.

- *elirakocie*, T633
- *Liraukegucie* T634

## 3.4.2. -ZA-

-*Za-* aditzak, Too sailean forma alokutibo bakar bat dauka korpusean.

- *eztecakegucie*, T634, orain-aldi potentzialean.

## JOAN

## 13. Taula

	ORAIN-ALDI ERREALA		IRAGAN-ALDI ERREALA	
1	NUHE-N	NIHACU	-	-
2	-	/	-	/
3	DUHA	DİHAÇU	CUHEDA	CİHAÇUN
4	GUAGEN	GUIHATÇU	-	-
5	ÇUAGEN	/	-	/
5'	-	/	-	/
6	DUATCELA	DİHATÇU	CUATCELA	-

## EGON

## 14. Taula

	ORAIN-ALDI ERREALA		IRAGAN-ALDI ERREALA	
1	NOON	NIAGOĞU	-	-
2	-	/	-	/
3	DAGO DOON	DIAGOĞU DİOOGU	GAĞUEN COOLA	CİAGOÇUN
4	GAUDEN	-	-	-
5	ÇAUDELA	/	CİDAUDENIAN	/
5'	-	/	-	/
6	DAUDE	DİAUDECU	GAUDENAC	CİAUDEÇUN

### 3.5. ADITZ-TRINKOAK.

Erran dezagun Lopez-engan guti direla aditz-trinko gisa agertzen diren formak: zazpi orotarat. Hiru intransitiboak dira, lau transitiboak.

Bainan dauden aditz-trinko hauek gehienetan forma alokutiboa daramate. Datiborik onartzen duten formarik ez dugu atxeman *daukola* forma fosilizatuaz aparte.

#### 3.5.1. Io. (13,14 taulak)

*Joan, egon, ibili* dira agertzen direnak. Alokutiboa egiten da beraz *i* izkia eta *zu* marka sartuz.

*duba* → *dibazu*

*dago* → *diagozu* (edo *doo* → *dioozu*).

*dabila* → *diabilazu*

*zauden* → *ziaudezun*

Ohartzen gara *egon*-eko alokutiboa nola egiten den. Pentsa zitekeen *euki* aditzaren forma neutroekin egiten ahal zela (*dago/daukazu*) *da/duzu* parean bezala. Ez da halakorik gertatzen.

Beste formak hauk dira: *ibili*: I4 *guiabilçaçu*, I6 *diabilçaçu*

#### 3.5.2. Too. (15.taula)

*-io-, jakin, -iro-, euki* dira agertzen direnak.

Hemen ere, alokutiboak *i* izkia eta *zu* hartzen ditu.

*dio* → *ziozu*

*diro* → *zirozu*

*daki* → *ziakizu*

*daukate* → *diaukazie*

Azken hau (*euki*) bazter utzirik, ohartzen gara *D*– aurritzka galtzen dela, *Z*– batetarat kanbiatuz, eta bakarrik hiru aditz hauetan: *-io-*, *-iro-* eta *jakin* aditzetan. Horren zergatia ez dakigu nola zila. Halere morfologiak baino lege fonetikoek izan dutela eraginik susmatzen dugu. Ohart-arazten duguna da hiruek jadanik *i* bat badutela erroan (*io, iro, jakin*) eta forma neutroetan (*dio, diro, bainan daki* (?)). Beharbada *zu* bat ez zen orduan aski alokutiboaren adierazteko eta *z* aurrezkia jin da alokutiboaren hobeki markatzeko.

Bestalde hiru aditz «arraro» hauek transitiboak dira, datiboaren marka ez dezakete onart, eta bigarren aktantea (objetoa) 3. edo 6. pertsonakoa baizik ez daiteke izan. Elgarrekilako berezitasun hoiek badutea zerbait egitekorik *z*-aurrizkiaren agertzearekin?

## - IRO. ORAIN ALDIA, ERREALA

## 15. Taula

	1	2	3	4	5	5'	6
1							
2							
3	DIROT (CIRDIAT)	-	DIRO CIROGU	DIROGU CIROGUGU	DIROGU CIROGUGU	DIROCIE-N CIROCIE	DIROTE-LA
4							
5							
5'							
6	-	-	EZPAITI- ROSKI LIAOZKIGU	EZTIROZ- KIGULA CIRROZKIGUGU	-	-	-

Kuriositate honen ondorioz, hiru aditz hauen alokutiboak *-n* atzizki soilaz baliatzen dira iragan-aldean orain-alditik bereizteko.

$$\begin{array}{ll} ziozu \neq ziozun & \\ ziakizu \neq ziakizun & \\ zirozu \neq zirozun & \end{array}$$

$$\begin{array}{ll} (ziozun + n \rightarrow cioen) & \\ (ziakizun + n \rightarrow çakien) & \\ (zirozun + n \rightarrow ciroen) & \end{array}$$

Beraz, zer nahi gosta ere, oposizioak salbatuak dira. Eta hori da munta duena.

Azken ohar bat *-iro-* aditzaz. Honen forma errealk *-za-* aditzaren ordez agertzen dira:

$$\begin{array}{lll} -dezake-ren ordez diro & (\text{neutroa}) & \rightarrow zirozu \quad (\text{alokutiboa}) \\ -zezakeen & » & ziroen \quad » \quad \rightarrow zirozun \quad » \\ -lezake & » & liro \quad » \quad \rightarrow lirozu \quad » \end{array}$$

Gainera iduri luke, eta morfologiaren aldetik ez da harritzekorik, *-iro-* aditzak super-potential bat egun liro(ke)ela, *-KE-* marka hartuz, *diroke*, *zirrokeen*, *liroke* bezalako formak emanez, semantikaren aldetik pleonastikoak

emaiten dutenak: *etcirokeela*, *diroskeela*, *elirakocie* (alokutiboa) Lopez-engan dokumentatzen dira.

Horren ondorioz, *-io-* aditza da Ebentual Errealean alokutiboa ezagutzen duen aditz bakarra. Hiru forma agertzen dira korpusean:

- *nirocu* (T13)
- *lirocu* (T33)
- *lirocie* (T63)

Aipatu ez ditugun formak hauek dira:

- io-*: orain aldi errealean: *cioçut* (T13), *ciocie* (T63)
- euki*: orain-aldi errealean: *diaukacie* (T63) *diauzcacie* (T66)
- jakin*: orain-aldi errealean: *baciakiçut* (T13) *baciakiguçu* (T43)  
*baciakicie* (T63)
- iragan-aldi errealean: *etciaikiçun* (T33)
- orain-aldi potentzialean: *eztciaikiçeu* (T33)
- ebentual potentzialean: *eliakikeçu* (T33), *ezkindiakikeçu* (T34)

#### 4. ALOKUTIBOAREN ERABILKERAREN BALDINTZAK

##### 4.1. Sintaxiaren aldetik.

Forma bat alokutiboa izaitekotz, perpaus bakun edo perpaus nausi baten aditza izan behar da. Gainera perpaus bakun edo nausi hori baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke bainan ez galderazkoa. Adibidez:

«*Jesu-Christoc erraiten dici*» (256.5). (perpaus baiezkoa)

«*Eztici erraiten*» (259.27). (perpaus ezezkoa)

Perpaus galderazkoek ez dute alokutiborik onartzen, galdera osoa izan dadin ala partziala:

«*badea artçainic bere ardiac bere odolaz haci thienic?*» (200.13) (galdera osoa)

«*eci behinere desiren ez obratcia, cerda becic-ere heen bere baithan ihortzia?*» (27.26) partziala

Perpaus txertatu edo menperatu batek alokutiborik ez du onartzen.

«*Seint Augustinek horren gainean ziozu Salbazaliak lurren gainean eraman dien bicitcia nola bici behar guindien eskolatceco dela*» (256.9).

Lege horrek ez du eskapatzerik; Lopez-ek segitzen du hutsik egin gabe. Lege hau hausten duen etsenplu bakar-bat atxeman dugu korpus guzian: *Baitici* agertzen baita behin (102.28), eta oraino *bait* hori har genezake baiezko elementu gisa.

Kasu berezi batez baliatuz, garbiki agertzen da erregelea hori; BA-aurrezkia baiezko marka balinbada, alokutiboa onartzen du, hala nola:

«*Badici* hoguei eta hamar ourte beno aboro egun oroz kofessatzen niçala.

(56.12)

«Bena *badu* beste becatu benial suerte bat, çointara Gincoaren cerbitzari epelac, eta lachuac, bere nahiz eta eçagutce osso bateki, erorten direnac

(45.2)

Bainan aldiz, *Ba-* aurritzka baldintzakoa balinbada, beraz perpaus menperatu baten elementua balinbada, alokutiborik ez du onartzen.

«Erraiten *badugu*, eta Jesu-Christoc berac erran *badu* arimen konbertitzen artciac ez deragula ahatz-eraci behar guihairen arimen salbamendia.»

Erregela honek, noski, aditz-tireta zenbaitek alokutiborik ez izaitea esplikatzen digu.

#### 4.2. Diskurtoaren aldetik

Baldintzak badira ere diskurtoaren aldetik: gure korpusean, zitazioetan ez da kasik sekulan alokutiborik onartzan. Adibideak ehunka eman ditezke:

cioçu «çuhurtcia maite dutenec, ihiki idireiten dute»

(24.).

«Egarri denari emanen *deracos* kitorik biciaren iturrico houretaric

(25)

Beraz iduri luke errespetu zerbait edo nolazpait erraiteko urruntasun zerbait emaiten zaiela Jainkoaren eta Sainduen erranei, alokutiborik ez erabiliz. Behar bada, diskurso zuzena eta diskurso zeiharkakoa zer heinetan erabiltzen diren hurbilagotik behar genuke arakatu.

Azkenean, hitz bat erran nahi genuke P. Lafitte-k eta G. REBUSCHI-k aipatu puntu batez: «les formes envelopantes», «implicatives» deitzen dituztenetaz. Gure ustez, eta barka biezadare sobera larria bada ene ikusmoldea, forma hauk Lopez-engan ez ziratekeen alokutiboak izan bi arrazoirengatik.

Lafitte jaunaren adibideak har ditzagun:

«Semea apeza dute»

«Haurrak Baionan nituen».

Gure ustez, sakonean ondoko hauek genituzke:

«Heien semea apeza da».

«Nere haurrak Baionan ziren».

Ororen buru eraiketa atributiboa besterik ez da, bi tokitako eraiketa batetara iragaiten dena, *izan* eta *ukan* aditzak bat bestearen orden trukatuz. Morfologiaren aldetik, ez dira alokutiboak 2.garren edo 5.garren pertsonako

markarik ez baitdute ekartzen. Gainera, gaude ez ote litekeen posible forma hauek alokutiboa emaitea:

«Haurrak Baionan nitizin» (?)

Beste bi etsenpluak hauek dira:

«Nor zaitut?»

«Lehen esan dizut edanak gaituzula».

Iduri luke kasu hoieta Lopez-ek ez lukeela alokutiboa onartu, lehen kasuan galderazkoan delakotz, bigarrenean perpaus txertatuan delakotz.

Beste ohar bat, Benveniste-k agerian eman duen 3.garren pertsonaren nortasunezak gogoratzan diguna. Nortasunez horrek erabilkera bat baino esplika diro, tratamendu alokutiboa alde batetik, bestetik berori-kako tratamendua. Utz dezagun mespretxuaren markatzeko baliatzen ahal den tratamendu impersonala.

Errespetuaren markatzeko nahian, edo kortesiaz, mintzatzen dugun 2.edo 5.garren pertsonako jendea gure izaera gora edo ezartzen ahal dugu, gizonen arteko harremetaz gora. Hori da berorikako tratamendua. Erran daiteke tratamendu honek 2.garren edo 5.garren pertsonako hatzik lukeen formarik ez lezakeela ameti; osterantzean, tratamendu alokutiboak 2.garren edo 5.garren pertsonako hatzik ez lukeen formarik ez lezakeela ameti. Hori larriki errana.

## 5. Azken hitza

Lan honetan, alokutiboaren alde guziak ez ditugu hunkitu; nundik datorkeen ez dugu aipatu, aspektoaren importanzia ez dugu izartu etab. Halere sistema azkar bat gisa agertzen zauku, egitura ontsa markatua daukana, nahiz eta defektiboa den, tratamendu neutroaren oposizio guziak atxikitzen dituena, eta erabilkera - legeak hertsiki segitzen dituena.

Gure ustez, alokutiboak ez du hartze gramatikalari zenbaitek haren kontra erakutsi duten mespretxua eta arnegua.

Alokutiboaren alorra egun zertan den jakiteko, tokian tokiko inkestak ezin-bestekoak dirateke. Hemen presentatzen den lana hizkuntza idatzi batean oinarritzen da. Bainan zoin da egun mintzatzen den alokutiboa? Norekin baliatzen ahal da? Norekin sekulan ez? Norekin bai artekan? Kabale guziekin berdin mintzatzen ote da, erran nahi baita ea erle bati, behi bati edo zakur bati berdin mintzatzen zaion? Alokutiboaren erabilkera ez dugu ongi ezagutuko lan hoien ekonomia egiten badugu, erran nahi baita hartaz ere axolatuko den Euskal Herriko Atlas linguistiko bat ez bada ahal bezain laster serioski abiatzen.

## Bibliografía

- ALLIERES J.: «Petit Atlas linguistique Basque Français Sacaze», *Via Domitia*, VII, 1960, 206-221 + 15 mapa, eta VIII, 1961, 82-126 orr., I-X, + 68 mapa (bereziki 107-111 orrialdeak).
- AZKUE, R. M.: *Morfología Vasca*, Bilbao, 1925.
- BENVENISTE: «Etre» et «avoir» dans leurs fonctions linguistiques in *Problèmes de linguistique générale*: N. R. F. 1964, 1. 187-207 orr.
- Structure des relations de personne dans le verbe, in *Problèmes de linguistique générale*, N. R. F. 1964, 1 225-236 orr.
- BONAPARTE, L.: Le verbe basque en tableaux... Londres, 1864.
- BOUDA, K.: Les formes respectueuses du verbe mixcain, *Eusko Jakintza*, 1948, II, 595-615 (Lopez-en liburua ikertzen du geihen bat).
- INCHAUSPÉ, E.: *Le verbe basque*, Bayonne, 1858.
- ITHURRY: *Grammaire basque*, Bayonne, 1920, 1979, E.V-k berriz argitaratua.
- KNÖRR, E.: Hiketa eta hitanoaz zenbait argi, *Euskera*, XX, 2, 701-720.
- LAFON, R.: *Le Système du verbe basque au XVI siècle*, Bordeaux 1944; 1980-n Elkar-ek berritz argitaratua.
- Place de la 2ème personne du singulier dans la conjugaison basque, *BSL*, LIV, 1959, 1, 103-129. Alokutiboari buruz, oinarrizko artikulua.
- LAFITTE, P.: *Grammaire basque*, 1944; 1978.n IKAS-ek berriz argitaratua. Bereziki 521, 541, 544, 567, 583, 595. kap.
- LEKUONA, M.: Deikia aditzetan, *Euskera*, 1956. 99-116.
- N'DIAYE, G.: *Structure du dialecte basque de Maya*, Mouton, The Hague- Paris. 1970. Bereziki 156.orr. 163-164, 167-191.
- OREGI, J.: Birrazterpen bat «hiketa» eta «zuketa». *Euskera*, 1975, 2 XXII. 685-700.
- POLGE, H.: Le tu et le tous, Annales V. Toulouse le Mirail, supplément à *Grammatica* XII, 1976, 13-32.
- REBUSCHI, G.: «Autour des formes allocutives du basque». *IKER-1* Euskaltzaindia, Bilbo, 1981. 307-321.
- SATRUSTEGI, J. M.: «Xukako aditz-joskera Luzaideko mintzairan». *IKER-1* Euskaltzaindia, Bilbo, 1981. 343-354. Interesgarri laiteke autoreak aipatzent dituen 345 gutunak nolazpait ezagut-araztea.
- SCHUCHARDT, H.: *Primitiae Linguae Basconum*, 1923. A. Yrigaray-k egin itzulpena, Salamanca, 1947.
- TESNIERES, L.: *Eléments de syntaxe structurale*, Klincksieck. Paris, 1976.
- TXILLARDEGI: Hika eta zuka-ko aditz-joko edo konjugazioaz, *Euskera*, 1968, XIII, 127-136.
- *Euskal Gramática*, E. V. Donostia, 1979.
- YRIZAR, P.: La alocución en el verbo vasco. Su expresión en los dialectos y variedades. *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, T. 1 1981, 305-312.
- Observaciones referentes al empleo de las formas alocutivas in *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, T.2, 1981, 373-387.
- ZATARAIN, A.: Ni naiz eta i aiz, *Euskera*, XXII-2. 1977, 739-746.